

## **PERTSONA EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO DIRU- LAGUNTZAK ARAUTZEKO 2019ko OINARRIAK ETA DEIALDIA**

### **1. ARAUDI ERREGULATZAILEA**

Oinarri hauen babes diren araudi eta xedapenak honakoak dira:

- 663/19 Alkatetza Dekretua (19/02/21).
- 2019ko otsailaren 13an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Leioako Udalak sinatutako hitzarmena, pertsona ekintzaileentzako 2018ko ekitaldiko laguntzen deialdia abian jartzeko.
- 2018ko abenduaren 28ko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez ezartzen da zer erakunde dauden baimenduta laguntzaile gisa aritzeko, gehi hautaketa eta laguntasun jardueragatik dagokio dirulaguntza, ekintzaileentzako tokiko proiektuen barruan, enpresa-ideiak garatzeko eta enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak emateko deialdia gauzatzeko.
- 2018ko irailaren 25eko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratzen da pertsona ekintzaileentzako 2018ko laguntzen deialdia (18/10/04ko EHAA).
- Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartzen dituen ordenantza orokorra. (13/02/11ko BAO).
- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorrari dagokion Erregelamendua onartzen duena.
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra.

## 2. XEDEA

Enpresa proiektuen promotore diren pertsona ekintzaileei laguntzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzea, bi laguntza ildoren bitartez:

1.- Ekintzaileak izan daitezkeen pertsonen ematekoak diren laguntza ekonomikoak, bakarrik aritu daitezkeen enpresa-ideia bat sortzen, aztertzen eta egituratzen, tokiko enpresa-sorkuntza proiektuen baitan. (ENPRESA IDEIA BAT GARATZEKO LAGUNTZAK).

2.- Negozio-ideia zehatz bat duten eta tokiko ekintzailetza-proiektuetan parte hartzen duten pertsona ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzeko laguntzak. (ENPRESA PROIEKTU BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK).

## I. KAPITULUA

### ENPRESA IDEIA GARATZEKO LAGUNTZAK, TOKIKO EKINTZAILETZA PROIEKTUEN MARKOAN

## 3. ONURADUNAK

1.- Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira, laguntza-prozesuari ekiteko unean eta eskabidea aurkezten duten unean, baldintza hauek betetzen dituzten pertsona ekintzaileak:

- a) Leioan erroldatuta daude eta Leioan benetan bizi dira oinarri hauek argitaratzen diren datan eta, gutxienez, laguntza-prozesua bukatu arte. Leioan erroldatuta egotea eta Leioan benetan bizi izatea ez da nahitaezkoa izango aurreikusita baldin badago enpresa-jarduera Leioan instalatzea. Kasu horretan, onuradunak EAEn erroldatuta egon beharko du eta bertan bizi, oinarriak argitaratzen diren unetik eta, gutxienez, aholkularitza-prozesua bukatu arte.
- b) Langabeak dira eta enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan. Ondorio horietarako langabetua dela iritziko da aldikako lanaldian ari denean, lanaldi osoa ez izanda %30 baino handiagoa.

- c) Ez dute inoiz izena eman Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren (IAE) erroldan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere aurreko urtean.
- d) Badute ideia bat enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko jarduera-arlo batean (jarduera-arlo hori edozein izan daiteke).
- e) Behargintza Leioaren ekintzailtza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean daude.
- f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, aurreko ekitaldietan, ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasotako diru-laguntzarik jaso ez izana, enpresa-idea bat garatzeko edo enpresa-jarduera berriak abian jartzeko.

2.- Laguntza hauen onuradun izateko, promotoreak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a) Beren enpresa-idea aztertzen eta garatzen soilik arituko dira. Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea eta diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 18 egun baino gehiago lan ez egitea. Ondorio horietarako, lan egindako eguntzat zenbatuko dira Gizarte Segurantzaren alta emanda egin dituen egunak. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatu beharreko egunak hauek izango dira: alta-egunak bider kontratatutako lanaldi-ehunekoak.
- b) Enpresa-idea sortzeko eta garatzeko aholkuak eta laguntza ematea xede duten jarduera guztietara joan beharko dute. Leioako Behargintzak zehaztuko ditu jarduera horiek.
- c) Xede berbererako diren beste diru-laguntzarik ez jasotzea.

#### **4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK**

Deialdi honetan, edozein jarduera-arlotan enpresa-idea bat aztertzeko eta garatzeko eta horretan soilik aritzeko emango dugu diru-laguntza, Leioako Behargintzaren laguntza edota tutoretza-proiekturen batean parte hartzen dutenei.

Deialdi honen babespean egiten eta aztertzen diren jarduerak, gutxienez, bi hilabete iraungo dute, eta 2018ko otsailaren 23a baino lehenago hasi beharko dute, ezinbestean.

#### **5. LAGUNTZA KOPURUA, ZENBATEKO ETA ORDAINTZEKO MODUA**

Laguntza kopurua eta promotoreei euren enpresa ideia garatzeko emango zaizkien gehieneko zenbatekoak honako hauek dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko abenduaren 28ko ebazpenaren arabera:

Laguntza prozesua hasten den unean, 30 urte baino gutxiago duten ekintzaileentzat:

- 3 laguntza ekintzailea emakumea bada.
- Laguntza bat ekintzailea gizona bada.

Laguntza prozesua hasten den unean, 30 urte edo gehiago duten ekintzaileentzat:

- 2 laguntza ekintzailea emakumea bada.
- Laguntza bat ekintzailea gizona bada.

Sustatzaileei euren enpresa-idea garatzeko eman beharreko laguntzaren zenbatekoa 1.000 eurokoa izango da.

Gutxieneko zenbateko hori % 15 handituko da baldin eta sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada, laguntza-prozesua hasteko unean. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du baldin eta sustatzailea emakumezkoa bada.

<b>ENPRESA IDEIA BATEN GARAPENA</b>			
<b>ADINA</b>	<b>SEXUA</b>	<b>LAGUNTZAREN ZENBATEKOA</b>	<b>LAGUNTZA KOPURUA</b>
<b>&lt; 30 urte</b>	Emakumea	1.300 €	3
	Gizona	1.150 €	1
<b>≥ 30 urte</b>	Emakumea	1.150 €	2
	Gizona	1.000 €	1

Laguntza emateko ebazpena Lanbidek egin ondoren, Alkatetza Dekretuaren bidez, Leioako Udalak diru-laguntza osorik ordainketa baimenduko du onuradunei ordainketa bakar batean, betiere, aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik behar diren ordainketak egiteko fondoak jaso baditu.

Esleipendunei diru-sarrera egin dakien, honako hauek aurkeztu behar izango dituzte:

- Hirugarrenei Alta emateko Agiria, behar bezala beteta.

- Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egin izana egiaztatzeko ziurtagiria.

## 6. EMAKIDA PROZEDURA

1.- Leioako Udalaren Berdintasun Planak eta Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 dokumentuko C.3 «Ekimen ekintzaileak modu integralean babestea» izeneko norabidea kontuan hartuta, deialdi honetan genero ikuspegia txertatzen da. Genero aldagaia sartuz, hautatuen %40 emakumeak izatea lortu nahi da.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako diskriminazio positiboaren irizpideak kontuan hartuta, kapitulu honetan araututako diru-laguntzak aurreko ataleko genero aldagaia kontuan izanda emango dira eta ondorengo taldeek lehenasuna izango dute:

- a) 30 urte baino gutxiago duten pertsonak
- b) 45 urte baino gehiago duten pertsonak
- c) DSBEren jasotzaile titularrak edo onuradunak diren pertsonak.

3.- Oinarri hauen 5 atalean aipatutako talderen batentzako, jasotako eskaeren kopurua eskainitako laguntzen kopurua baino handiagoa izango balitz, aurreko paragrafoaren 2 puntuan ezarritakoa, eta publizitate, lehia eta objetibotasun irizpideak kontuan hartuta, kapitulu honetan araututako diru-laguntzak zozketa publikoaren bidez egingo dira, epe barruan eta egin eta Leioako Udalaren oinarri arautzaile eta deialdian agertutako baldintzak betetzen dituzten alde horretako pertsona guztien artean.

Leioako Udalak zehaztuko du zozketa non, noiz eta zer ordutan izango den. Aurretik, Leioako Udalaren eta Leioako Behargintzaren web orrietan, [www.leioa.eu](http://www.leioa.eu) eta [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net), jakinaraziko da zozketa non eta zein ordutan izango den.

Oinarri hauetako 5. artikulua ezartzen dituen talderen baten diru-laguntza guztiak esleitzen ez badira, Lanbidek ezarritako irizpideak aintzat hartuko dira horiek estaltzeko.

4.- Leioako Udalak, Alkatetzaren Dekretuaren bidez, parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko proposamena onartuko du; baita aurreikusitako laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena ere; eta igorriko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lan-aktibaziorako Zuzendaritzari, eskaerak kudeatzeko eta izapidetzeko organu arduraduna.

Prozedura ebazteko eskumena duen organua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaria izango da.

5.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gehienezko epea ebazpenak gauzatzeko eta jakinarazteko lau hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den datatik hasita. Behin epe hori gaindituta onartutzat emango da laguntzaren eskaera, ez badago beren beregiko ebazpenik.

6.- Interesatuak ebazpen-proposamenaren jakinarazpena jasoko dute banakako eran.

7.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendariaren ebazpenek administrazio-bideari bukaera emango diote, eta beraien aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal da organo berberaren aurrean hilabete bateko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera, edo errekurtso zuzena Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera.

## II. KAPITULUA

### **TOKIKO EKINTZAIETZA-PROIEKTUEN BARRUAN, ENPRESA JARDUERA BERRIAK MARTXAN JARTZERA BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK**

#### 7. ONURADUNAK

1.- Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira, eskabidea aurkezten duten unean eta laguntza prozesuari ekiteko unean, baldintza hauek betetzen dituzten pertsona ekintzaileak:

- a) Leioan errolatuta daude eta Leioan bizi dira oinarri hauek argitaratzen diren datan eta, gutxienez, laguntza prozesua bukatu arte.  
Leioan errolatuta egotea eta Leioan benetan bizi izatea ez da nahitaezkoa izango aurreikusita baldin badago enpresa-jarduera Leioan instalatzea. Kasu horretan, onuradunak EAEn errolatuta egon beharko du eta bertan bizi,

- oinarriak argitaratzen diren unetik eta, gutxienez, aholkularitza-prozesua bukatu arte.
- b) Langabeak dira eta enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan. Ondorio horietarako langabetua dela iritziko da aldikako lanaldian ari denean, lanaldi osoa ez izanda %30 baino handiagoa. Baldintza hori JEZn alta emanda egoteko unean ere bete beharrekoa da.
  - c) Ez dute inoiz izena eman Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren (JEZ) erroldan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezia ere aurreko urtean.
  - d) Enpresa-bideragarritasunaren plan bat edukitzea enpresa edo negozio berri bat martxan jartzeko. Leioako Behargintzak baliozkotzat jo beharko du plan hori, laguntza fasean.
  - e) Behargintza Leioaren ekintzaitza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean daude.
  - f) Enpresa jarduerak EAEn izan beharko du helbide sozial eta fiskala, baita lan zentroa ere.
  - g) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, aurreko ekitaldian, ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen enpresa jarduera berriak martxan jartzera bideratutako diru-laguntzeko deialdian jasotako diru-laguntzarik jaso ez izana.

2.- Laguntza hauen onuradun izateko, promotoreak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a) Beren enpresa-idea aztertzen eta garatzen soilik arituko dira. Sustatzaileak arduraldi eksklusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea eta diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 27 egun baino gehiago lan ez egitea.

Ondorio horietarako, lan egindako eguntzat zenbatuko dira Gizarte Segurantzaren alta emanda egin dituen egunak. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatu beharreko egunak hauek izango dira: alta-egunak bider kontratatutako lanaldi-ehunekoak.

- b) Enpresa-idea sortzeko eta garatzeko aholkuak eta laguntza ematea xede duten jarduera guztietara joan beharko dute. Leioako Behargintzak zehaztuko ditu jarduera horiek.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez ere 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita. Alta horren titularrak edozer forma juridiko har dezake, baldin eta sustatzaileak egiaztatzen badu, hala dagokionean, sozietate-harremana duela harekin eta baldin eta xede soziala bat badator tutorizatutako proiektuarenekin.

Ekintzaileek ez badute alta ematen JEZen aipatu epean, ez dute izango diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubiderik.

- d) Enpresa jarduerak EAEn izan beharko du helbide sozial eta fiskala, baita lan zentroa ere.
- e) Xede berbererako diren beste diru-laguntzarik ez jasotzea.

## **8. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK**

Deialdi honetan adierazitako diru-laguntza jasotzeko, kapitulu honen babespean, pertsona sustatzaileek baldintzak bete beharko dituzte eta Leioako Behargintzaren laguntza edo tutoretza jaso beharko dute enpresa edo negozio-proiektu bat martxan jartzeko behar diren ekintzak garatzeko.

Deialdi honen babespean egiten eta aztertzen diren jarduerak, gutxienez, hiru hilabete iraungo dute.

## **9. LAGUNTZA KOPURUA, ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

Laguntza kopurua eta promotoreei euren enpresa ideia garatzeko emango zaizkien gehieneko zenbatekoak honako hauek dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko abenduaren 28ko ebazpenaren arabera:

Laguntza prozesua hasten den unean, 30 urte baino gutxiago duten ekintzaileentzat:

- Laguntza bat ekintzailea emakumea bada.
- Laguntza bat ekintzailea gizona bada.

Laguntza prozesua hasten den unean, 30 urte edo gehiago duten ekintzaileentzat:

- 2 laguntza ekintzailea emakumea bada.
- 2 laguntza ekintzailea gizona bada.

Sustatzaileei 1.500 euroko diru-laguntza emango zaie (sustatzaile bakoitzeko), enpresa-proiektu berriak abian jartzeko.



Zenbateko hori % 15 handituko da baldin eta sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada laguntza-prozesua hasteko unean. Horrez gain, beste % 15eko iguera izango du baldin eta sustatzailea emakumezkoa bada.

<b>ENPRESA JARDUERA BERRIAK MARTXAN JARTZEA</b>			
<b>ADINA</b>	<b>SEXUA</b>	<b>LAGUNTZAREN ZENBATEKOA</b>	<b>LAGUNTZA KOPURUA</b>
<b>&lt; 30 urte</b>	Emakumea	1.950 €	1
	Gizona	1.725 €	1
<b>≥ 30 urte</b>	Emakumea	1.725 €	2
	Gizona	1.500 €	2

Halaber, kapitulu honen babespeko onuradunek, Leioako enpresa mintegian sortutako lankidetzaren espazioan lanpostua izateko aukera edukiko dute Behargintza Leioak ezarritako laguntza edota tutoretza epealdian zehar. Interesik baleuka onuradunak, beren-beregi adierazi beharko luke Leioako Udalaren eskabide orrian.

Aldi baterako egonaldi horrek ez du esleipendunarentzako kosturik izango, baina 200 euroko fidantza utzi beharko du lankidetzaren espazioaren esleipena egiten den unean, udal enpresa mintegiko gune publikoa behar bezala erabili eta zaintzen dela bermatzeko. Fidantza hori itzuli egingo da esleipena amaitzen den unean, behin egiaztatuta espazioa behar bezala erabili dela.

Leioako Udalak bi ordainketatan eta honela ordainduko die onuradunei, betiere, aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik behar diren ordainketak egiteko funtsak jaso baditu:

- Emandako diru-laguntzaren % 50 ordainduko diete lehendabizi, enpresa-proiektua martxan jartzeko aholkularitza-prozesua hasi eta bideragarritasun-plana adostean.

Esleipendunei diru-sarrera egin dakien, Hirugarrenei Alta emateko Agiria, behar bezala beteta aurkeztu behar izango dute.

- Bigarren ordainketa bat egingo da, gainerako % 50 rekin, ekonomia-jardueren gaineko zergan (JEZ) alta eman ondoren. Horretarako, laguntza-prozesua amaitzen denetik kontaktzen hasi eta hiru hilabeteko epean gehienez ere, ekonomia-jardueren

gaineko zergan (JEZ) alta eman izanaren kopia aurkeztuko zaio Leioako Behargintzari, egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria batekin batera. Eta bertan zehaztuko dira egindako jarduera guztiak eta Leioako Behargintzak baliozkotzat jo beharko du oinarrietako 7.1.a) eta b) puntuetan ezartzen dena. Hau da:

- Leioan errolatuta daude eta Leioan bizi dira oinarri hauek argitaratzen diren datan eta, gutxienez, laguntza prozesua bukatu arte.  
Leioan errolatuta egotea eta Leioan benetan bizi izatea ez da nahitaezkoa izango aurreikusita baldin badago enpresa-jarduera Leioan instalatzea. Kasu horretan, onuradunak EAEn errolatuta egon beharko du eta bertan bizi, oinarriak argitaratzen diren unetik eta, gutxienez, aholkularitza-prozesua bukatu arte.
- Langabeak dira eta enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan. Ondorio horietarako langabetua dela iritziko da aldikako lanaldian ari denean, lanaldi osoa ez izanda %30 baino handiagoa. Baldintza hori JEZn alta emanda egoteko unean ere bete beharrekoa da.

Zenbateko horien diru-sarrera egiteko, esleipendunek Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurrean ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute aurretik.

## 10. EMAKIDA PROZEDURA

1.- Publizitate, konpetentzia eta objektibotasun irizpideei so eginik, kapitulu honetan araututako diru-laguntzak eskabidean aurkeztutako negozio-planaren balorazioaren arabera emango dira.

Balorazio hori Leioako Behargintzako teknikariek egingo dute.

Leioako Udalaren Berdintasun Planak eta Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 dokumentuko C.3 «Ekimen ekintzailak modu integralean babestea» izeneko norabidea kontuan hartuta, deialdi honetan genero ikuspegia txertatzen da. Horrela, 15 puntuko gehieneko balorazioaren gainean, honako aspektu hauek baloratuko dira, eta aspektu bakoitzari dagokion gehieneko balorazioa ere zehazten da:

- a) Emakumeen ekintzailak: 4 puntu
- b) 30 urte baino gutxiagoko pertsonak edo 45 urte baino nagusiagoak: 3 puntu
- c) DSBEn jasotzaile titularrak edo onuradunak diren pertsonak: 3 puntu
- b) Berrikuntza: 2 puntu
- b) Inbertsioa eta aurreikusitako finantzaketa: 2 puntu

- c) Sortzen ari den aktibitate sektorea: 2 puntu
- d) Aurreikusitako kontratazioa: 2 puntu
- e) Talde eragilea: 2 puntu

Proiektu batek baino gehiagok azken balorazio berbera lortuko balute, a) atalean punturik gehien daukana lehenetsiko da. Berdinketa ez balitz horrela desegingo, b) atalean punturik gehien duena lehenetsiko da. Horrela egingo da, segidan, berdinketa desegin arte. Diru-laguntza hauek emango zaizkie proiektuetan puntuaziorik altuena erdiesten duten pertsoneri.

Erdietsitako puntuazioa aintzat hartuko zaie eskabidean Leioako Enpresa Mintegiko lankidetzaren guneko lanpostuaren gaineko interesa adierazi zutenenei. Horrela, puntuaziorik altuena dutenek lortu ahal izango dituzte eskuragarri dauden lanpostuak.

2.- Leioako Udalak, Alkatetzaren Dekretuaren bidez, parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko proposamena onartuko du; baita aurreikusitako laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena ere; eta igorriko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lan-aktibaziorako Zuzendaritzari, eskaerak kudeatzeko eta izapidetzeko organu arduraduna.

Prozedura ebazteko eskumena duen organua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaria izango da.

3.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gehienezko epea ebazpenak gauzatzeko eta jakinarazteko lau hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den datatik hasita. Behin epe hori gaindituta onartutzat emango da laguntzaren eskaera, ez badago beren beregiko ebazpenik.

4.- Interesatuak ebazpen-proposamenaren jakinarazpena jasoko dute banakako eran.

5.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendariaren ebazpenek administrazio-bideari bukaera emango diote, eta beraien aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal da organo berberaren aurrean hilabete bateko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera, edo errekurtso zuzena Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera.

### **III. KAPITULUA XEDAPEN KOMUNAK**

#### **11. DIRU-LAGUNTZEN PERTSONA ONURADUNAK**

1.- Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen onuradunak izango diren pertsonak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki beharko dituzte. Horretarako, ordainketa bakoitza esleitu eta gauzatu aurretik baldintza hori betetzen dela egiaztatatu behar izango da.

2.- Ezin izango dira deialdi honetan aurrez ikusitako laguntzen onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aipatzen diren gainerako egoeretako batean dauden pertsonak edo erakundeak, ezta sexu-diskriminazioa egiteagatik diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zehatuta daudenak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

3.- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek, edo Leioako Udalak eta edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko prozedura oro amaitzea ezinbestekoa izango da onuradunei laguntzak eta diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko.

#### **12. ESKABIDEAK TRAMITATZEA**

1.- Deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratzeko eskabideak aurkeztu, Leioako Udalaren eta Leioako Behargintzaren web orrietan eskuragarri dagoen ([www.leioa.net](http://www.leioa.net) eta [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)) eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira.

2.- Diru-laguntzaren eskabidea behar bezala beteta aurkeztuko da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, Udal Erregistro Nagusian (Elexalde 1 helbidean) edo Leioako Behargintzan (Mendibile 3 helbidean). Bulego bien arreta ordutegia astelehenetik ostiralera bitartekoa da, 8:30etik 14:30era. Dokumentazioa aurkezteko beste modu bat urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 16.4 artikulua aurreikusten duena da.

Interesdunak ez badu fisikoki eskabidea aurkezten Udal Erregistro Orokorrean edo Leioako Behargintzan, eta beste modu batez aurkezten badu, eskabidea behar bezala

zigilatuta bidali beharko du faxez (944 022 541) edo posta elektronikoz (behargintza@leioa.net) 2019ko martxoaren 4a baino lehen (egun hau barne), eskabideak aurkezteko azken eguna.

3.- Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) NAN fotokopia, edo bere kasuan, norberaren kontura lan egiteko aukera bermatzen duen identifikazio ziurtagiria.
- b) Errolda txartela, leioaztarren kasuan izan ezik, ofizioz ziurtatuko baita.
- c) Eskaera egiten den unean langabezia egoera ziurtatzen duen agiria. Hori ziurtatzeko, Lanbidek egiten duen "Inskripzio epealdi eta lan-egoeraren txostena" aurkeztu behar da.
- d) Hala balegokio, eskabidearen bidezko baimen beren beregia ofizioz egiaztatzeke DSBEn jasotzaile titularra edo onuraduna denarena.
- e) Gizarte Segurantzak egiten duen lan-bizitzaren agiria, oinarri hauek argitaratzen diren dataren ostean egina.
- f) Gizarte Segurantzaren aurrean eta zerga-betebeharren aurrean egunean egotea egiaztatzeke ziurtagiria.
- g) Laguntza eskatzen bada enpresa jarduera berriak abian jartzeko, nahitaez aurkeztu beharko da, gainera, enpresarako bideragarritasun plana. Plan horrek, gutxienez, honako atala hauek izan behar ditu:
  - Sarrera
  - Negozioaren deskribapena eta kokalekua
  - Inbertsio proiektua eta finantzaketa iturriak
  - Merkatu ikerketa
  - Antolakuntza eta giza baliabideak (talde eragilea)
  - Hartutako forma juridikoa
  - Azterketa ekonomiko-finantzarioa.

Eskabidea osorik beteta egon ezean edo nahitaezko dokumentazioa atxikitzen ez badu, interesatuari eskatuko zaio bost egun baliouduneko epean (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 33 zk. artikulua betez) hutsak konpontzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio, hala egin ezean, bere eskabidea alde batera utziko dela. Administrazioak berriazko ebazpena emateko betebeharra izango du eta hura interesatuari jakinarazi beharko zaio, aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21 eta 68.1 artikuluetan xedatutakoarekin ados.

### **13. AURKEZTEKO EPEA**

Oinarri arautzaile hauek Udalaren eta Leioako Behargintzaren webguneetan ([www.leioa.eu](http://www.leioa.eu) eta [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)) argitaratzen diren egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Epea, edozein kasutan, 2019ko martxoaren 4an bukatuko da (egun hori barne).

### **14. LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA**

Laguntza edota tutoretza amaitu eta hilabeteko epean, gehienez, I. Kapitulan (Enpresa-idea baten garapena) aurreikusitako laguntza jaso dutenek oroitidazki bat edo txosten bat aurkeztu beharko dute Leioako Behargintzan; zehazki, laguntza jaso duten aldiaren enpresa-proiektuaren bideragarritasuna aztertze aldera zer lan egin dituzten zehazten duen oroitidazki bat, edo hala badagokio, proiektuaren bideragarritasunari buruzko txosten bat. Leioako Behargintzako teknikariek izenpetu behar dituzte dokumentu horiek.

Laguntza amaitu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, II. Kapitulan (Enpresa-jarduera berriak martxan jartzea) aurreikusitako laguntza jaso dutenek JEZen alta emanda dagoela ziurtatzen duen agiriaren kopia eta burututako jarduerak zehazten dituen Azken Oroitidazkia aurkeztu beharko dituzte Leioako Behargintzan. Oroitidazkia Leioako Behargintzak baliozkotu beharko du eta balio beharko du lan plangintza eta emaitzen jarraipena egin ahal izateko.

Kasu bietan, Gizarte Segurantzak emandako Lan Bizitzaren Txostena aurkeztu behar izango da, laguntza-prozesuaren bukaera-datatik aurrera egindakoa.

Aurreikusitako epeetan, diru-laguntza justifikatzen ez bada, diru-laguntza bueltatzeko arrazoi izango da. Beraz, artikuluko honek zehazten dituen justifikaziorako epeak igarota, ez bada justifikaziorik egin, jasotako zenbatekoak itzultzeko derrigortasuna eta geratzen diren zenbatekoak jasotzeko eskubidea galtzen dela adierazteko prozedura abiaraziko da.

### **15. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoaren, 50.2 artikuluan jasotako eginbeharrak bete behar dituzte onuradunek, eta batik bat, betebeharrak hauek:

- Justifikatu behar dute laguntza emateko eta baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera egiten dutela.

- Egiatzapen- eta kontrol-jardueren mende jarri behar dute. Erakunde hauek egingo dituzte jarduera horiek: Leioako Udalak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Europako Gizarte Fondoaren Unitate Administrazioaileak, Europako Batzordeak eta Europako Kontuen Auzitegiak.

-Beste edozein administrazio publikok edo erakunde publikok edo pribatuk laguntzaren bat edo diru-laguntzaren bat ematen badie helburu bererako, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Laguntza ematerakoan kontuan izan zen egoera objektibo edo subjektiboren bat aldatuz gero, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Gertaeraren batek funtsezko eran eragiten badio diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek, edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bat hasi bada eta oraindik bideratzen ari bada, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

## **16. DIRU-LAGUNTZA ALDATZEA**

Oinarri hauetan jasotako laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzeak emandako laguntza aldatzea ekar dezake berekin, baldin eta onuradunak ezarritako gutxieneko betebeharrak betetzen baditu. Baldintza horiek aldatzeak emandako laguntzaren guztizkoa edo zati bat itzultzea badu ondorio, dagokion itzultze prozedurari ekingo diogu.

## **17. BESTE DIRU-LAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUK ALDI BEREAN JASOTZEA**

Deialdi honen aurreikusitako diru-laguntzak ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk emandako edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin, baldin eta helburu edo xede berarekin ematen badituzte.

## **18. EZ BETETZEA ETA EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA**

1.- Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak jaso dituzten pertsona edo erakunde onuradunek ez baldin badituzte betetzen Diru Laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan modu orokorrean aurrez ikusitako betebeharrak, edo baldin badaude Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1. artikuluan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1. artikuluan edo Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluetan adierazitako egoeraren batean, edo ez baldin badira betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzetatik edozein, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak dagokion ebazpenaren bidez ezarriko du, hala baldin badagokio betiere, jasotako kopuruak osorik edo hein batean itzultzeko eta berandutze-interesak ordaintzeko betebeharra, azken horiek, diru-laguntza ordaindu zenetik zenbatzen hasita, hori guztia egoki diren gainerako ekintzak eragotzi gabe, eta abenduaren 17ko 698/1981 Dekretuan ezarritakoa betez (698/1981 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen du eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu).

2.- Edozein arrazoi dela-eta, onuradunek I. eta II. Kapituluak aipatzen dituzten laguntza- edota tutoretza-prozesua behar baino lehenago uzten badute, hauxe izango da emandako diru-laguntza itzultzeko araubidea:

- a) Prozesua hasi eta hilabete baino lehenago utziz gero edo JEZen alta jaso, onuradunek jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko dute eta ordaindu gabeko zenbatekoak, baleude, ezeztatuko dira.
- b) Lehenengo hilabetea igaro ondoren eta laguntza-lana amaitu baino lehen utziz gero prozesua edo JEZen alta jaso, zenbateko hauek itzuli beharko ditu:
  - I. kapituluan araututako diru-laguntzaren kasuan, emandako laguntzen %50 itzuliko dira.



- II. kapituluaren araututako diru-laguntzaren kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa jasotakoaren 1/3 izango da. Halaber, ordaindu gabe dagoen diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko eskubidea galduko du.

Nolanahi ere, proiektua bertan behera utzi aurretik edo JEZen alta jaso aurretik gauzatutako jardueri buruzko Memoria aurkeztu beharko da. Bestela, diru-laguntza justifikatuta ez dagoela ulertuko da mantentzen den zenbatekoari dagokionez eta diru-laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko da, 14 Oinarrian 3 paragrafoan ezarritakoarekin ados.

3.- I eta II Kapituluaren laguntza edota tutoretza prozesuek irauten duten bitartean sustatzaileak beste inoren kontura jarduerak burutzen baditu 18 egunez edo 27 egunez, hurrenez hurren, laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo du eta jasotako diru-laguntza guztia itzuli behar izango du (Euskara Zerbitzuarentzat 30.3. artikulua)

4.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hasiko du diru-laguntza itzultzeko prozedura, eta horren berri emango dio onuradunari. Zehazki, ez-betetzearen zergatiak jakinaraziko dizkio, eta eskatuko dio hamabost eguneko epean egoki deritzon alegazioak edo frogagiriak aurkezteko. Prozesua hasteak ekarriko du, bere kasuan, ordaindu gabe geratzen diren zenbatekoen ordainketa ezeztatzea.

5.- Alegazioak egiteko epearen barruan alegaziorik egiten ez bada edo alegazioak ezesten badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariak ebazpena emango du. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ebazteko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da.

6.- Ebazpenak ezartzen badu ez-betetzea gertatu dela eta interesdunak eskubidea galdu duela diru-laguntzaren guztizkoa edo zati bat jasotzeko, interesdunak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiarantz itzuli beharko dizkio dagozkion zenbatekoak, gehienez ere bi hileko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko dugu.

7.- Interesdunek dirua borondatezko epean itzultzen ez badute, premiamendu-bidez itzularazteko izapideei ekingo diegu.

## 19. DATU PERTSONALEN BABESA

Leioako Udalak, 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari buruzko arauak ezartzen dituena (Datuen Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta 2/2004 Euskal Legeak xedatutakoaren arabera,

eskuratzen dituen datu pertsonalak Udalaren datu-fitxategietan tratatuko dituela jakinarazten dizu, bere eskuduntzen arabera udal kudeaketaren eginkizunak aurrera eramanez. Fitxategi hauek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi zaizkio, segurtasun osoa bermatzeko ezinbestekoak diren segurtasun neurriak dituzte eta lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuko dira. Datuak zerbitzua egoki emateko ezinbestekoak dira. Berauen egiazkotasunaren eta egunerapenaren aldeko konpromisoa azaltzen da. Datuen baten faltsutasunak edo utzikeriak zerbitzu egokia ematea galerazi dezake. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta berauen aurka agertzeko aukera dago helbide honetan: Elexalde, 1. 48940 - Leioa (Bizkaia). Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu aurreko guztiaren berri eman beharko diozu.

Zentzu horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua deialdi honetan araututako laguntzen eskabideetan jasotako datu pertsonalak bertan aurreikusitako diru-laguntzen kudeaketa eta kontrolerako erabiliko ditu.

Halaber, interesdunek eskubidea dute, legeak ezartzen duenaren arabera, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko. Horretarako, idazki bat bidali behar dute hori adierazteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzeko xedez, Leioako Udalak jakitera ematen du eskatzaileen datu pertsonalak modu automatizatuan tratatu ahal izango direla eta Leioako Udalaren Informazio Sistemak sar daitezkeela. Datu horiek soilik udal kudeaketan erabili ahal dira, eta beste Administrazio Publiko batzuei laga edo jakinarazi ahal izan ez daitezke. Interesdunek datuak ikusi, kendu, zuzendu eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Udalaren informazio- eta erregistro-zerbitzuaren bitartez.